

2020ko AURREKONTUEN MEMORIA


Durangoko Udaleko 2019-2023 legegintzaldirako aurrekontuetan, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak osaturiko gobernu taldeak harturiko konpromisoak gauzatzen dira. Aurrekontuen ildo nagusiak ondorengo hauek dira:

- Justizia soziala
- Feminismoa
- Geltokiaren lurzoruak eta galdeketa
- Herriko merkataritza eta enplegua sustatzea
- Aire, ingurunea eta energia berriztagarriak
- Auzoak
- Osasuna eta kirola
- Euskara eta Kultura
- Espazio publikoa hobetzea
- Hezkuntza
- Mugikortasuna
- Gardentasuna, hurbiltasuna eta parte-hartzea

Helburu nagusia izanik durangarrentzako neurriak diseinatzen hastea, 2020ko aurrekontuak lehen katebegia dira aldaketaren bidean.

2020ko aurrekontuak prestatzerakoan ezinbestekoa izan da zenbait aldaketa egitea egitura organikoan eta aurrekontukoan:

- 2019ko aurrekontuak 2018ko aurrekontu-luzapenaren oinardeko dira. Baina gastuen benetako exekuzioa ez zetorren bat aurrekontuetan jasotako gastuekin.
- Aurreko aurrekontuetako 1. kapituluak ez ziren jasotzen Udaleko lanpostu guztiak, orain aldiz, lanpostu horiez gain, lanpostuen zerrendan agertzen ez ziren lanpostuak ere jasotzen dira, eta 2019 eta 2020ko ordainsarien gehiketak ere bai. Hortaz, benetako egoerara birmoldatu behar honek, igoera nabarmena eragin du 1. kapituluak (pertsonala).
- Udaleko barne-antolaketa berregituratu egin da hiru sail nagusi sortuz: Antolakuntza, Herrigintza eta Lurraldea.
- Oraingo gobernu taldeak defendatzen duen eredu politikoa, soziala eta ekonomikoa aldatu egin da.



Kontuan izanda legegintzaldiko ardatz nagusiak, Durangoko Udalari esleitutako eskumenak eta urtealdi bakoitzari dagokion aurrekontuen erabilgarritasuna, honako lehentasun hauek ezarri ditugu 2020. urterako:

- Politika sozialak: gizarteratze sozialerako partida handitu dugu, alegia, pertsona nagusia eta etorkinena.
- Berdintasuna: berdintasun-printzipioa bermatuko dugu eta indarkeria matxistaren kontrako udal plana garatuko.
- Haurrak eta gazteak: Aisialdi guneak eta jarduerak eskainiko dizkiegu haur eta gazteei adinaren arabera: Ludotekak eta Gazte leku.
- Euskara eta kultura: kultur jarduerak indartu eta handitzeaz gain, lehendik dauden egiturak eraberritzeko lanak egingo dira Pinondo Etxean eta Ezkurdiko erakusketa aretoan.
- Hezkuntza: Jarduera amankomunak sustatuko dira herriko ikastetxe eta udaleko baliabideen artean Durango hezkuntza-hiri gisa garatzeko. Halaber, egiturazko hobekuntzak egingo dira ikastetxe publikoetako instalazioetan.
- Kirolak: Taldekako zein norbanako kirola sustatuko da.
- Turismoa eta merkataritza: berebiziko arreta jarriko dugu herriko merkataritza sustatzeko neurriak jartzeko. Besteak beste, azoka plaza indartzeko mekanismoak jarriko ditugu abian.


Ardatz hauei esker, eta errespetua eta kohesioa oinarri izanik, Durango komunitate gisa indartzea ahalbidetuko da: zaindu, osatu, berreskuratu, hitz egin, hartu eta emango duen herria, alegia.

2020ko aurrekontuen gauzarik aipagarriena inbertsioen atala da.

Inbertsioen atalak aldaketa handia dakar aurreko urteekin alderatuz gero. 2018ko aurrekontu luzatuetan inbertsioen zenbatekoa 144.178,58 € zen. Orain aldiz, EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak **2.327.076,42 €** bideratuko ditu inbertsioetara, hain zuzen ere, herria eta herritarren bizitza-kalitatea hobetzeko.

Inbertsioak bultzatze-ardaz izango dira, eta herritarrak eta berauen beharrianak jarriko ditugu erdigunean:

- Auzoak: Antso Estegiz hobetzeko egitasmoa eta Aramotz Berritu proiektua.
- Hobekuntzak argi-sarean eta bideko segurtasunean.
- Edateko uraren hodiak aldatzea fibrozementukoak jarritz.
- Energia-ekintza plana:
 - o Auditoretza
 - o Eraikuntza energetikoa gehitzea hornikuntza elektrikoaren lotune moduan.
 - o Ibilgailu elektrikoak esleituko zaizkie udaltzaingoari eta notifikazio zerbitzuari.
 - o Birkarga elektrikoaren puntuak jarriko dira.



- Asfaltoa hobetuko da
- 30.000 € geltoki zaharreko lurzoruen gaineko herri galdeketa egiteko.
- 600.000 € herritarrek prozesu parte-hartzailearen bidez erabaki eta gobernu taldeak bere gain harturiko 16 ekimenak burutzeko.

Azkenik, Erakunde Autonomo eta Enpresa Publikoei dagokienez:

- Astarloa Kulturgintza: Erakundearen gune ezberdinak indartuko ditugu bisita gidatu bidez; aldi berean, kultur agenda bateratuko dugu. Eta audio-gida zerbitzu berria jarriko da museoan.
- Euskaltegia: Euskaren ikaskuntza bultzatuko dugu lehen ikastaroa (A1) doan eskainiz Durangon.
- Musika Eskola: Musika hezkuntza indartu eta musika taldeen berriztatzeari ekingo zaio.
- Durango Kirolak: Kirola eta osasuna sustatzen jarraituko dugu eta ikastaro berriak abian jartzen.
- Durango Eraikitzen: Entitate hau baliatuko dugu Durangoko auzoak zaharberritzeko, besteak beste, Berritu Aramotz proiektua eta Renozebe proiektu europarra. Halaber, jarraipena egingo diegu Eraikinen Ikuskapen Teknikoei. Eta lanean jarraituko dugu Etxebizitzaren Mahaian, etxebizitza hutsen merkatua ateratzeko eta alokairua sustatzeko.
- Landako Erakustazoka: azken aurrekontu onartua jaso dugu elkarrearen egunez eguneko jarduna bermatzeko eta elkarrekin ematen duen zerbitzu publikoaren disoluzio-likidazioa saihesteko. Prozesua 2020an amaituko da.

2020ko aurrekontu hauek politikaz ulertzen dugunaren adierazgarri dira, hots, hurbiltasunetik landu dira herritarren nahiak gure eginez eta lanean elkarrekin jarduteko bideak eraikiz. Pertsonak osaturiko Durango eraikitzea dute jomuga. Durango bihotzez.